

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoa bide-segurtasuna eta zirkulazioaren arintasuna zaintzen izango da igandean Zangozan ospatuko den Nafarroa Oinez

Ekitaldietan 56 agente izango dira, eta haietan 10.000 auto eta 200 autobusetan iritsiko diren 80.000 lagun biltzea aurreikusten da

Jueves, 16 de octubre de 2014

Foruzaingoa 56 agentez osatutako segurtasuneko dispositibo berezi bat prestatu du igande honetan, urriak 19, Zangozan [Nafarroa Oinez](#) ospatuko dela-eta. Haren helburua bide-segurtasuna eta zirkulazioaren arintasuna bermatzea da, bai eta programatutako ekitaldiak normaltasun osoz egin daitezen ere.



Nafarroa Oinez en aurreikusitako aparkalekuen eta ibilbidearen (gorrian) plano.

Dispositiboa goizeko 08:00ean jarriko da martxan, lehen parte-hartzaileak iristen hasi baino ordubete lehenago. Aurreikuspenen arabera, 80.000 bat lagun biltzea espero da, 10.000 autotan eta 200 autobusetan iritsiko direnak.

Aurreikusitako ibilgailu- eta bisitari-kopuru handiaren aurrean, Foruzaingoa parte-hartzaileei eskatu die *Nafarroa Oinez*eko antolakuntzak prestatutako seinaleak eta informazio-taulak errespetatu ditzatela, bai eta agenteek emandako aginduak ere. Iristeko punta-puntako orduak ekiditea gomendatzen da, 10:00etatik 13:00etara, eta baita iritetekoak ere, 18:00etatik aurrera.

Bestalde, Nafarroako Larrialdi Agentziako langileak antolakuntzak ezarritako koordinazio-organoan parte hartuko du, aurreko urteetan bezala, eta organo hori Zangozako ikastolan jarriko da. Gainera, Nafarroako Gobernuak suhiltzaile-parkean eta udalerrri horretako osasun-zentroan langile gehiago jarriko ditu izan daitezkeen gorabeherei erantzuteko.

Aurreikusitako aparkalekuak

Antolakuntzak autoek aparkatzeko bi gune prestatu ditu, eta baita hirugarren bat ere, behar izanez gero. Lehenengo aparkalekura, Guash (P-1) izenekoa, NA-132 (Lizarra-Zangoza) errepidearen 73,9 km-tik iritsi ahal da; bigarrena, berriz, Valdeoscura izenekoa (P-4), Yamaguchi

hotelaren alboan dago, eta NA-127 (Liedena-Sos del Rey Católico) errepidearen 3,5 eta 3,8 kp-etatik iritsi ahalko da. Aldiz, behar izanez gero erabil daitezkeen hirugarren aparkalekua, La Magdalena (P-3), NA-127 errepidearen 5,8 kp-aren parean kokatuko da.

Bestalde, autobusak aparkatzeko NA-5410 (Zangoza-Xabier) errepideko eskuineko erreia erabiliko da; zirkulaziorako itxita izango da bi noranzkoetan, igandean, 08:00etatik 20:00ak arte. Arrazoi hori dela-eta, Zangozatik Xabier aldera, eta alderantziz, doazen ibilgailuak Esa aldetik jo beharko dute Pirinioetako Autobiatik (A-21) edo NA-2420 (Dorre-Elortzibar-Esa) errepidetik.

Azkenik, ibilgailu gonbidatuek eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela dutenek Cantolaguako lurrezko futbol-zelaian aparkatu ahalko dute; autokarabanek, berriz, Cantolagua inguruaren alboan dagoen Zangozako kanpin zaharrean.

Turismoak eta autobusak sartzeko operazioa

Foruzaingoak Iruñeritik, Nafarroa iparraldetik eta ipar-mendebaldetik eta EAetik datozen autoei gomendatzen die, Zangozara irits daitezela Pirinioetako Autobiaren (A-21) 39. irteera erabiliz (Liedena/Zangoza) eta Yamaguchi hotelaren alboko P-4 aparkalekura joan dezatela

Nafarroa hegoaldeko eta mendebaldeko autoei dagokienez, komeni da Zangozara NA-132 (Lizarra-Zangoza) errepidetik hel daitezela eta P-1 aparkalekuan utz dezatela autoa, bide horretako 73,9 kp-aren alboan.

Bestalde, Nafarroako Ikastolen Federazioko ikastetxeetatik datozen ibilgailuak, Pirinioetako Autobiako (A-21) 35. irteera (Kaseda/Aibar/Irunberri) hartzea gomendatzen da, eta Aibarko ibilbidetik joan daitezela NA-132 (Lizarra-Zangoza) errepidearekin bat egin arte. P-1ean aparkatu ahalko dute, Nafarroa hegoaldeetik eta mendebaldetik etorriko diren autoen ondoan.

Autobusei dagokienez, ezarritako ibilbideek bereizten dituzte, aparkatu behar dituztenak eta soilik bidaiariak utzi baina aparkatu behar ez dituztenak. Lehenengoak, nondik datozen alde batera utzita, NA-5410 (Zangoza-Esa) errepidera jo beharko dute Pirinioetako Autobiako (A-21) 47. irteera (Esa) erabiliz. Ibilgailu horiek errepide horretatik jarraituko dute Zangozaraino eta bide horretako eskuineko erreian aparkatuko; bertan geratuko dira programatutako ekitaldi guztiak amaitzen diren arte.

Aparkatu gabe bidaiariak utziko dituzten autobusek Pirinioetako Autobiako (A-21) 39. irteera (Liedena/Zangoza) hartu beharko dute, bidaiariak Zangozao burdinezko zubian uzteko; handik, NA-132 (Lizarra-Zangoza) errepidea hartuko dute irteteko.

Irteera-operazioa

P-1ean aparkatutako autoak, zelaitik bideetatik aterako dira eta NA-132 (Lizarra-Zangoza) errepidean sartuko, Tafallako noranzkoan. Nafarroa hegoaldera eta mendebaldera doazenek, errepide horretatik jarraitu beharko dute; nolana ere, beste helmuga bat dutenek, Pirinioetako Autobiarekin (A-21) bat egin ahalko dute, Aibar aldetik.

Aldiz, P-4 aparkalekua erabiltzen duten autoak Pirinioetako Autobian (A-21) sartuko dira NA-127 (Zangoza-Sos del Rey Católico) errepidea erabiliz, Liedenako noranzkoan. Autobusek ibilbide hori bera egingo dute.